



## GOIZUETAKO UDALA

### GOIZUETAKO UDALAK ZERBITZU ANITZETAKO PERTSONA BAT ALDI BATERAKO ETA LAN ERREGIMENEAN KONTRATATZEKO DEIALDIA (URTE BUKAERAKO LANAK)

#### OINARRIAK

##### 1.OBJEKTUA

Deialdi honen objektua, Zerbitzu anitzetako pertsona baten aldi baterako eta lan erregimeneko kontratazioa iragartzea da, zeina hautaketa proben bidez osatuko den.

##### 2. LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK

2.1. Gauzatu beharreko funtzio nagusiak ondorengoak dira, hauetara soilik mugatu gabe:

- Azaro Kultureko jardueretan beharrezkoak diren udal lanak
- Gabonetako ospakizunetarako beharrezkoak diren udal lanak
- Mendi lanak; besteak beste podak, itxitura mantenimendua, zuhaitz markaketak, landaketa lanak.
- Herriko kale eta espazio publikoen garbitasuna
- Herriko azpiegituren mantentze lanak: igeltsaritza, pintura, elektrizitatea, arotzgintza...
- Kale mobiliarioaren instalakuntza eta mantentzea.
- Mobiliario eta bestelako egituren garraio eta kolokazioa. Hesi, eskenatoki edo antzekoen muntai eta desmuntai.
- Udal titularitateko bideen mantentzea
- Udaleko beste zerbitzuek behar dutenean laguntza ematea.

2.2. Lanpostuaren ordainsaria Nafarroako Administrazio Publikoen menpeko langileen estatutuan zehaztutako "D" mailari dagokiona izango da eta %12ko mailaren osagarria izango du

Pertsona hau Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean altan emango da.

2.3. Jardunaldia osoa izango da.

2.4. Kontratuaren iraupena hiru hilabetekoa izango da.



## GOIZUETAKO UDALA

### 3. ESKABIDEEN AURKEZPENA

Izangaiek deialdian parte hartzeko, Goizueta Udaleko Erregistro Orokorrean (Herriko Plaza, 4.-1 zenbakia) Nafarroako Enplegu Zerbitzutik zuzenean egindako komunikazio-zitazioan zehaztutako epean, jasotako lan eskaintza aurkeztu beharko dute.

Izangaiek eskatzen diren eskakizun guztiak betetzen dituztela ziurtatu beharko dute dokumentalki.

Parte hartzeko eskaera egiteko epea, azaroaren 4 arte izango da, egueldiko 12.30ak arte

### 4. PARTE HARTZAILEEN ESKAKIZUNAK

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatzen denean, pertsona izangaiek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Espainiar naziokotasuna edukitzea edo Europar Batasuneko Estatu kide bateko naziokotasuna edo Europako Erkidegoarekin langileen zirkulazio askea aurreikusten duen nazioarteko hitzarmena sinatu eta Espainiak berretsi duen Estaturen bateko kidea izatea.
- b) Hamasei urteak beteak izatea, nahitaezko erretiro gehienezko adinetik ez pasea izatea.
- c) Eskabideak aurkezteko epea bukatzen denean DBHn Graduatu edo Eskola Graduatu Ziurtagiria (LOGSE aurreko titulua) edo baliokide aitortutako titulu edo berau eskuratzeko kredituak ordaindu izanaren frogagiria izatea.  
  
Atzerrian eskuratutako tituluaren kasuan, honen homologazioa bermatzen duen egiaztagiria eduki beharko da.
- d) Dagozkion funtzioak gauzatzeko gaitasun fisiko eta psikikoak edukitzea.
- e) Desgaituta ez egotea, ezta funtzio publikoetarako galarazia eta Administrazio Publikoaren zerbitzutik bereizita ez izana.
- f) Langabezian eta enplegu-eskatzaille gisa inskribatuta egotea Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren mendeko enplegu-agentzietako batean edo edozein enplegu-bulegotan, (enplegu hobetzekoak barna) eta hori egiaztatzea, enplegu-eskaeraren egiaztagiria aurkeztuz
- g) Ibilgailua gidatzeko B gida baimena edukitzea

4.2. Hautaketa probetan parte hartzeko, eskabideak aurkezteko momentuan izangaiek aurreko eskakizunak betetzen dituztela egiaztatzea beharko dituzte.

### 5. PROZEDURA

Ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuaren bidez onartutako Nafarroako Administrazio Publikoaren Sarrerari buruzko Erregelamenduaren 42. artikuluan xedatutakoaren arabera, aldi baterako langileak hautatzeko prozedurak kontratazioan ahalik eta arintasun handiena



## GOIZUETAKO UDALA

ahalbidetu beharko dute.

Presazko eta premiazko kasu bat dela kontutan hartuta, Udaleko zerbitzu anitzetako langileak indartzeko, urte amaierako lan-bolumena handitzen delako (azaroko kultureko-jarduerak, Gabonak...), udal honek egin eta bete behar dituen udal-eskumeneko lan eta zerbitzuei aurre egiteko, interes orokorraren alde eta bizilagunei zerbitzua emateko, Goizuetako Udalak Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Santesteban/Doneztebeko enplegu-bulegoari eskatuko dio deialdiaren 4. oinarrian aipatzen diren betekizunak eta baldintzak betetzen dituzten enplegu-eskatzaileen zerrenda bat, (enplegu-hobekuntzakoak barne), eta zerrenda horretan sartzen direnek hautaprotetan parte hartzeko aukera izango dute.

Era berean, hautaketa-prozesurako onartu ahal izango dira, baldintza horiek beteta eta Doneztebeko (Nafarroa) enplegu-bulegoek deitu ez arren, edozein enplegu-bulegotan enplegu-eskatzaile gisa (enplegu-hobekuntzakoak barne) dauden eta 4.oinarrian aipatzen diren betekizunak eta baldintzak betetzen dituzten enplegu-eskatzaileak

Ondoren, zehaztutako hautaprotan bidez hautaketa sistemari ekingo zaio.

### **6. ONARTZEKO PROZEDURA**

Eskabideak aurkezteko epealdia igarota, Goizuetako Udaleko Alkateak ebazpena emango du onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda onartuz eta bere iragarpena aginduko du Goizuetako Udaleko iragarki oholean. Izangai bazterturik ez balego, onartutako zerrenda behin-betikoa izango da.

Baztertutako pertsona izangaiak, behin-behineko zerrendaren iragarri eta ondorengo eguna izango dute, erreklamazioak tarteratu tarteratzeko.

Erreklamazio epea iraganda eta behin hauek ebatzi ondoren, Alkateak onartu eta baztertutako izangaien behin-betiko zerrenda ebatziko du, eta bere iragarpena aginduko du Goizuetako Udaleko iragarki oholean. Ebazpen berean zehaztuko da hauta probak hasteko lekua, eguna eta ordua.

Onartutako eta baztertutako izangaien iragarpenarekin egintzat joko da Administrazio Publikoaren Administrazio Erkidearen 39/2015 Legeak 41. artikuluan jasotako jakinarazpena.

### **7. HAUTAKETA PROZESUAREN GARAPENA ETA BALORAZIOA**

#### **7.1. Hautaketa prozesuak ariketa teoriko-praktiko idatzizko bakarra izango du.**

Ariketa teoriko-praktiko idatzizkoa, gehienez ere 100 punturekin baloratuko dena.

Proba epaimahaiak zehaztutako gehienezko denboran, I. Eranskinean jasotako gaitegiaren inguruko galdera teorikoak erantzutean datza.

Proba test-motako galdera motzak erantzutean datza, adierazitako 3 aukeretatik bakarra izango delarik zuzena.



## GOIZUETAKO UDALA

Ariketa honek gehienez ere 100 puntu izango ditu. Galdera guztien balioa berdiña izango da. Proba ez da baztertzaileria izango.

Epaimahaiak, izangaien kalifikazioa bukatu, aldi baterako kontratazioa egiteko izangaien zerrenda iragarriko du iragarki oholean jasotako puntuazioaren hurrenkeran.

Izangaien zerrendan hurrenkera jartzeko kontutan hartuko da hautapen probetan lortutako puntuazioa (haundienetik hasita).

Ondoren hautagaiak, egun berean, aukera emango zaie, azterketa ikusi eta erreklamazioak tartaratzeko.

Ariketak egiteko deialdia dei bakarraz egingo da. Izangaiak Nortasun Agiri Nazionala edo Epaimahaiak nahiko kontsideratzen duen bestelako identifikazio agiriarekin aurkeztu beharko dute, aurkezten ez diren izangaiak baztertuak geratuko direlarik.

### **7.2. Izangaien zerrenda, epaimahaiaren proposamena, deialdia eta dokumentazioa aurkeztea.**

Epaimahaiak deialdia egiten duen Administrazioari puntuaketa hobereana jaso duen izangaiaren kontratazio proposamena luzatuko dio.

Deialdia egin duen Administrazioarentzat proposamena loteslea izango da.

Berdinketarik gertatuz gero, goizuetan erroldatua dagoen hautagaiaren alde egingo da. Berriz ere berdinketa sorutko balitz zozketa egingo da.

Hautatutako izangaiari jakinarazpen efektuetarako emandako telefono dei bidez eta posta elektronikoki bidez jakinaraziko zaio bere izendapena, dagokion kontratua sinatzera aurkeztu beharko du administrazioak zehaztutako epean.

Hautatutako izangaia lan postura berehala gehitu beharko da. Inkorporazioa gertatzen ez den kasuan, behar bezala justifikatutako kasuetan salbu edo behin gehituta berriz hutsik geratuko balitz, organo eskudunak hautaketa prozesuan puntuaketa hobereana atera duten izangaien hurrenkeran, eskaintako kontratazioarekin adostasuna adierazi duen izangaia kontratatu dezake.

## **8. KALIFIKAZIO EPAIMAHAI**

8.1. Epaimahaia ondorengo kideek osatuko dute:

- **Lehendakaria:** Unai Miranda Berroeta, Goizuetako Udaleko Alkatea.
- **Kidea:** Francisco Javier Ansa Egurrechea, Aranoko Udaleko zerbitzu anitzetako langilea.
- **Kidea:** Fernando Goia, Goizuetako Udaleko zerbitzu anitzetako langilea.
- **Kidea:** Ana Lujambio Etxegia, Goizuetako Udaleko administrari laguntzaileria.
- **Kide-Idazkaria:** Miriam Arozena San Miguel, Goizueta-Arano Udaletako idazkaria.

Epaimahai hautaprobek aurretik eratu beharko da.



## GOIZUETAKO UDALA

8.2. Epaimahaia ez da eratuko eta ez du jardungo, gutxienez, kideen gehiengo osoaren partehartzerik gabe.

8.3. Epaimahai-kalifikatzaileko idazkaria izango da aktak jasoko dituen, epaimahaiko kide bakoitzak firmatu beharko duelarik akta bakoitza.

8.4. Epaimahaiak ebatziko ditu deialdiaren oinarriaren interpretazio eta aplikazioaren inguruan suerta daitezkeen zalantzak; berdinketa gertatuko balitz, lehendakariak bere kalitatezko-bozka baliatu dezake.

8.5. Epaimahaiak aholkulari adituak gehitu ahal izango ditu proba guzti eta batzuetarako. Aholkulariok beraien espezializazio teknikoko alorretara mugatuko dira eta Epaimahaiarekin hauei dagokienean soilik jardungo dute.

### 9. DEIALDIAK

Izangaien kalifikazioa bukaturik, aldi baterako kontratazioa egiteko izangaien zerrenda osatu eta onartuko da eta iragarriko da iragarki oholean jasotako puntuazioaren hurrenkeran.

Deialdi honetan sortzen den zerrendak ordezeko izaera izango du funtzio publikoan sartzeko 2024ko martxoko hautaketa-prozeduratik eratorritakoekiko, 2020ko otsaileko zerbitzu anitzeko aldi baterako kontrataziorako izangaiak eratzeko/zerrenden prozeduratik eratorritakoekiko, eta 2024 urteko lehiaketa-oposizio bidezko egonkortzeko prozeduratik eratorritako denarekiko

Izangaiei deia, Aldi baterako kontratazioak kudeatzeko arauak onartzen dituen Lehendakaritza, Justizia eta Herrizaingo Sailburuaren abenduaren 31ko 814/2010 Foru Aginduaren baitan egingo dira

### 10. HELEGITEAK

Deialdi honen aurka, bere oinarri eta hauen aplikaziotik ondorioztatutako egintzen aurka ondorengo helegiteren bat tarteratzea hauta daiteke:

- a) Berraztertze helegitea, hilabeteko epean, egintza administratiboa emandako organu berdinen aurrean, jakinarazpena egiten denetik edo aurkatzen den egintza edo akordioa iragartzen den hurrengo egunetik.
- b) Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa bi hilabeteko epean, jakinarazpena egiten denetik edo aurkatzen den egintza iragartzen denetik.
- c) Gorako errekurtsua zuzenean Nafarroako Auzitegi Administrazioan, hilabeteko epean, jakinarazpena egiten denetik edo aurkatzen den egintza iragartzen denetik.

Epaimahai kalifikatzailearen egintzen aurka gorako errekurtsua tartera daiteke hilabeteko epean Goizuetako Udaleko Alkatearen aurrean.



GOIZUETAKO UDALA

**I. ERANSKINA: GAITEGIA**

Gaia.- Lanposturen funtzioak gauzatzeko beharrezko diren eskulagintzen ezagutza: igeltseritza, pintura, elektrizitatea, arotzgintza, garbiketa eta hondakinen bilketa, birziklapena, laneko segurtasun neurriak, herriko kale eta parajeak.....

Goizuetan, 2024ko urriaren 25ean

ALKATEA

Sin:Unai Miranda Berroeta